

# ek!

eta kitto!  
euskara elkarteak

2025eko urtarrilak 24 · 1340 zenbakia



## ITZULERA IKARAGARRIA IZANGO DA

**EUKI**  
ASEGURUAK



**AUTO ASEGURUA**

MOTORRA EDO FURGONETA  
... BAITA QUAD-A,  
AUTOKARABANA,  
KAMIOIA,  
BURU TRAKTOREA,  
AUTOBUSA,  
ATOIAK...

**AUTO  
ASEGURU  
ESKAINZA**

**AURREZTU ZURE ASEGURUAN  
GALDETU GURE ESKAINTZARI BURUZ!**

Informazio gehiago: [eukiseguros.com](http://eukiseguros.com)

 **Neinor** HOMES

ARRATE HOMES • EIBAR

**EZ PENTSA**

**BIZI EZAZU!**



**ZATOZ PISU PILOTUA IKUSTERA**

**Obra berriko etxebizitzak:**

**Gimnasioa | Gourmet aretoa**

**Garajea | Trastelekua**



**900 11 00 22 • [neinorhomes.com](http://neinorhomes.com)**

Adam, Errenteria  
24/11/18 Donostia Ospitalea

**Gipuzkoa egunero  
sortzen da.**

Pertsonen ongizate integral handieneko  
lurraldea izatea da gure asmoa.

**GIPUZKOA**  
Ekin. Zaindu. Bizi.



# Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



etakitto.eus

Kaleratu zuten lehen (eta azken) diskotik ia 10 urte igaro eta gero, The Vartools talde eibartarrak 'Awesome' lana kaleratu du gaur. Guztira sei abesti ditu, eurretako bi euskaraz (taldean lehen aldiz), eta Walter Tuzzeo lagun eta taldekide ohia ere gogoratu dute bertan.

**eta kitto!**  
euskara elkarteak



#### ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkartea

#### HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

#### TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

#### ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

aldizkaria@etakitto.eus

#### ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

#### ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

#### ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

#### KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

#### ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

#### DISEINUA

Maku Oruezabal

#### MAKETAZIOA

...eta kitto! astekaria

#### HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

#### PUBLIZITEA

Belen Ulazia eta

Ander Fernandez

#### TELEFONOA

943 20 67 76

#### AZALEKO ARGAZKIA

Jose Torrealday

#### BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

#### TIRADA

7.800 ale

#### INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

#### COPYRIGHT-A

...eta kitto!

#### LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta  
Gipuzkoako Foru Aldundiak  
lagundutako aldizkaria



**EIBAR**  
Udala | Ayuntamiento



Gipuzkoako Foru Aldundia

# Eskutitzak



## Gutunen atalerako oharra

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin, eta hala sinatuta kaleratuko dira. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia ere helarazi behar zaigu. Salbuespen modura, identifikagarriak diren elkarte, kolektibo edo taldeen kasuan, horien izenean sinatuta argitaratu ahal izango dira gutunak.

Idatzitako testuek ez dituzte 1.400 karaktere (20 lerro) baino gehiago izan behar, tarreak barne. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero.

Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik. Erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabakitzeko eskubidea bere egiten du.

Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak postaz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez, erredakziwoa@etakitto.eus helbidera.

Erredakzioa

# Hortik esanak



AEBetan bizi diren mexikarrek duten eragina erabatekoa da bertako ekonomian: urtero, bertan bizi diren eta nekazaritza, zerbitzuak eta eraikuntza bezalako sektoreetan lan egiten duten 37 milioi mexikarrek 324.000 milioi dolar ipintzen dituzte Ekonomia agintarien estatistika tauletan. Oraindik gehiago, mexikar horietako bakoitzak 1,30 dolar inguru ordaintzen ditu zergetan, gobernutik jasotzen dituen gastu sozialeko dolar bakoitzeko. Orokorrean, mexikarren eragina handia da ekonomian, baina nekazaritza arloan erabatekoa da. Estatu Batuetan 10 nekazaritza langiletik zazpi mexikarrak dira. Nork hartuko du bere gain lan hori, beharrak dakarren soldata makalarekin, Trumpek agindu dituen deportazio masiboak gertatzen badira?

IÑIGO BILBAO, kazetaria

Inor ez ala denok. Klima larrialdia inork ez pairatzeko aldaketak bideratu ezean, behintzak guztiak pairatu dezagula. Satisfaziorik ez zidaten eragin Los Angeleseko suteek, baina justizia sentimendu bat, haatik, bai. Amamaren “pobre ala aberats, hiltzeko tenorean denak hein berean gira” erranaz oroitu nintzen. Horregatik justizia (klimatikoaren) usaina hartu diet Los Angeleseko suteei.

JENOFA BERHOKOIRIGOIN, zutabegilea


Pantailen aurrean orduak eta orduak metatzearen ondorioz, smartphonea fetitxe erregea bihurtu dugu. Kapitalismo teknologikoaren eskakizunetara ezin hobeto moldatzen den gure gorputzaren luzakina izaki, giza baldintzaren mutazio kulturala aitzinarazteko fetitxe maitemina da, subjektibitate hibridoaren bitartekaritza egiten aproposa. Giza barrena eskaneatzeko tresna bihurtuta, gure fetitxe orojakilea da.

JEXUX LARRAÑAGA, Gizarte Antropologian dokorea

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**PEKIÑERA BIALDU** → Pikutara bidali. “Ixilduari eta juari Pekiñera!!”.

**PEKIÑERA JUAN** → Gauza bat denboraren edo erabileraren poderioz, edo istripuz, alperrik galtzen denean esaten da. “Pekiñera juan jataz oiñetako hónek”.



Idurre Iriondo

## Farmaziak

<b>BARIXAKUA 24</b>
<b>EGUNEZ   Zulueta</b> (San Agustin, 5)
<b>ZAPATUA 25</b>
<b>EGUNEZ   Elortza</b> (J. Gisasola, 18)
<b>DOMEKA 26</b>
<b>EGUNEZ   Castaño</b> (J. Etxebarria, 7)
<b>ASTELEHENA 27</b>
<b>EGUNEZ   Mendinueta</b> (Urkizu, 6)
<b>MARTITZENA 28</b>
<b>EGUNEZ   Azkue</b> (T. Etxebarria, 4)
<b>EGUAZTENA 29</b>
<b>EGUNEZ   Zulueta</b> (San Agustin, 5)
<b>EGUENA 30</b>
<b>EGUNEZ   Elortza</b> (J. Gisasola, 18)
<b>BARIXAKUA 31</b>
<b>EGUNEZ   Castaño</b> (J. Etxebarria, 7)

**GAUEZ BETI**, 2025ean,  
Lekunberri (Isasi, 31)

## Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

## Hildakoak

- **Ana Maria Carmona Martin.**  
93 urte. 2025-01-14.
- **Encarnacion Lopez Lopez.**  
96 urte. 2025-01-15.
- **Dolores Garate Unzetabarrenetxea.**  
101 urte. 2025-01-15.
- **Cristina Fernandez Gil.**  
78 urte. 2025-01-16.
- **Carmen Beretxinaga Garitaonandia.**  
97 urte. 2025-01-16.
- **Socrates Franco Sarmiento.**  
91 urte. 2025-01-16.
- **Juan Gallardo Rodriguez.**  
91 urte. 2025-01-17.
- **Visitacion Fernandez Fincas.**  
93 urte. 2025-01-17.
- **Vega Martinez Rioja.**  
60 urte. 2025-01-19.



## Indarkeria bikarioari eta instituzionalari buruzko topaketa egingo da gaur Ipuruan

Indarkeria bikarioaren eta instituzionalaren aurkako borrokaren plaza izango da Ipuruako Merkatu Plaza gaur arratsaldean, 18:30ean hasiko den jardunaldian. Bertan izango da, besteak beste, Maria Bestar musikagile eta zinegilea, Blanca Tulleuda aktibistarekin batera. Bigarren honek indarkeria bikarioa eta genero-indarkeria instituzionalari buruz egingo du berba. Tulleuda *Libres de Violencia Vicaria* eta CEPAMA elkarteetako kidea da, eta oso ezaguna da Instagram sare sozialean (@labirabola), horrelako gaien inguruan egiten duen dibulgazio eta kontzientziazio lanarengatik. Aktibista katalanak hitzaldia amaitu eta, jarraian, Maria Bestar musikagile eta zinegilearen *No estás loca* film laburra proiektatuko dute eta, on-

doren, berarekin hitz egiteko tartea egongo da. Lan honek sari asko jaso ditu, eta tratu txar psikologikoen gaiari heldu dio zuzendariak. Sarrera librekoa izango da.

### Maria Besterren “No estás loca”

Jardunaldiaren antolatzailean berbetan, “oso ohituta gaude tratu txar fisikoen irudiak ikustera, baina inoiz ez zaio heltzen horren aurreko tratu txarrari, kaltegarriagoa eta iraunkorragoa denari, psikologikoari. Horren barruan indarkeria bikarioa nabarmentzen da, oso ezezaguna baita eta uste duguna baino ohikoagoa. Klase ertain altuko bikote baten harremanean oinarritzen da; izan ere, badirudi horrelako tratu txarrak gizarte-klase baxuagoetan bakarrik gertatzen direla”.

## “Haurren Lagun den Hiria” bilakatzeko lanean hasi dira Udalean

Udala lankidetzan ari da UNICEF elkartearekin, udal politika guztietan haurren eskubideak bermatu daitezkeen. Haurren Kontseilua sortzeak aukera emango die umeei erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzeko. Azarotik, Eibarko Udalak buru-belarri dihardu lanean UNICEF elkartearen “Haurren Lagun den Hiria” zigilua lortzeko. Bereizgarri hori haurren eskubideen aldeko konpromisoa hartu eta hura sustatzen duten herriei aitortzen zaie. Lehenik, Osoko Bilkuran aho batez onartu zen UNICEFekin sinatutako hitzarmena, non aitortza hau eskuratzeko bete beharreko konpromisoak, helburuak eta epeak ezartzen ziren. Hitzarmen horren xedea da Udalaren politikak eta ekintzek Eibarko haurren beharrik, eskubideak eta parte-hartze aktiboa aintzat hartzea.

Ezarritako baldintzak betetzeko, Udalak sailarteko mahai tekniko-politiko bat osatu du, hileroko biltzen dena. Mahai horretan hainbat udal-sailek hartzen dute parte, ahalik eta ikuspuntu gehienetatik heldu ahal izateko haurren beharrei.







## Mugikortasunari buruzko galdetegi batetzeko deia egin du Andretxeak

Eibarko Udala "Eibarko Hiri Mugikortasun Iraunkorreko Plana" prestatzen ari da, eta Andretxean Eibarko herritarren iritzia jasotzeko postontzietako bat ipinita dagoela ekarri dute gogora: "Funtsezkoa iruditzen zaigu emakume eibartarren iritzia plan horretan egotea, eta, beraz, galdetegi bat betetzera hurbiltzera gonbidatzen zaituztegu. Ez duzue denbora askorik beharko". Bestela ere, Internet bidez bete daiteke, esteka honetan: <https://udalonink.ibatuz.com/index.php/384793/lang-eu>. Andretxean bezala, herriko beste toki batzuetan ere ipini dituzte buzoia. Behin galdetegi guztiak jasota, bigarren fasea hasiko da. Horretarako, otsailaren 11n, 18:30ean, Errebal Plazan (A gelan) aurrez aurreko saio bat egingo da, herritar guztiei irekia. Tailer horretan, Eibarrak dituen mugikortasun-arazoak azaleratuko dira. Umezaintza-zerbitzua egongo da (4-10 urte bitarteko umeak) aurretik 688 73 61 36 telefonora deituta.

## Jordina Arnauaren hitzaldiarekin hasiko da 'Eibartik Independentziara' egitaraua

Eibarko Ernaiko gazteek *Eibartik Independentziara* egitaraua antolatu dute. Aisialdirako jardueraz gain, eskaintza politikoa egin nahi izan dute, eta horretarako hitzaldia antolatu dute martitzenerako. Jordina Arnauk "Faxismoa eta eskuin muturra: orain eta hemen" izeneko emango du, 19:00etatik aurrera Arrate Kultur Elkartearen antolatzaileen berbetan, "mundu mailan faxismoa eta eskuin muturra goranzko joeran dauden honetan, gure herritik fenomeno hau nola aztertu behar dugun eztabaidatuko

dugu datorren asteartean. Jordina Arnau kazetari eta komunikatzailearen eskutik, honi kolektiboki aurre egiteko moduak ere aztertuko ditugu".

Eta, otsailaren 1ean, *Eibarko Independentzia Eguna* ospatuko da: 10.00etan frontenis txapelketa eta kamiseta tailerra egingo dira, Legarrekero frontoian; bazkaria 14:30ean hasiko da; 20:00etan DJ Zerna(h) iren musika-saioa hasiko da, eta Aroztegi auzipetuei elkartasuna azaltzeko argazkia aterako dute Deporren.

**ESKERTZAK ETA URTEURRENAK**  
Urkizu, 11 - solairuartera  
publizitatea@etakitto.eus  
688 62 76 89

FUNEUSKADI Grupo Asistea	FUNERARIA MUGICA Funeuskadi
TANATORIO EIBAR	TANATORIO CREMATORIO ELGOIBAR
24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951 <a href="http://www.funeuskadi.com">www.funeuskadi.com</a>	
Eibar: Otaola, 27	Elgoibar: Xixilion, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)
Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20	Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16
Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao	



## Etxegabetasunari aurre egiteko END elkarteak formalki eratzeko batzarra egin da

Etxegabetasunaren arazoari konponbidea emateko asmoz sortutako END plataformak aurreko eguean egin zuen lehen batzarra, Arrate Kultur Elkarteak. Adierazi dutenez, Eibar eta inguruko elkarteetako kide ugari elkartu ziren bertan, “batez ere etxerik ez dutenen egoerarekin kezkatuta dauden pertsonak hurbildu ziren”. Gizarte-ekintzaren eremuko langileak eta elkarte, sindikatu eta politikako kideak ere bertaratu ziren END plataforma modu formalean eratzeko egin zen bilera. Plataformatik azaldu digutenez,

“batzarra plataformaren jatorriaren laburpen txiki batekin hasi zen eta, jarraian, itxi berri den neguko dispositiboaren eta plataformaren azken mobilizazioei buruzko bideo batzuk proiektatu ziren. Ondoren, elkarrearen estatutuak aurkeztu ziren, onartu ahal izateko. Eta, jarraian, ekarpenez beteriko eztabaida interesgarria sortu zen”. Amaituurretik, plataformak emango dituen hurrengo urratsak zeintzuk diren azaldu zuten, eta horiei buruzko zehaztasunak hurrengo baterako laga zituzten.

## Altzolan Tren Geltokia Bai taldeak bilera egitea eskatu die agintariei

Altzolako barianteari buruz berba egiteko asmoz, Altzolan Tren Geltokia Bai taldeak bilera eskatu die Susana Garcia Chueca Mugikortasun Jasangarriaren sailburuari eta Ana Telleria Auzoak Berronertzeko eta Hiri Agendarako zuzendari berriari. Gutun batean Altzolako tren geltokiaren eta bariantearen inguruko gertakarien berri eman du taldeak eta, informatzeaz gain, politikariek bildu nahi dutela argi laga nahi izan dute.



## Bilboko manifestaziora joateko autobusa San Juan kaletik irtengo da

Faxismoaren aurrean erantzuteko asmoarekin, Gazte Koordinadora Sozialistak (GKS) deituta bihar Bilbon egingo den manifestaziorako autobusa antolatu dute, Debabarrenerako. Eibarren, San Juan kaletik irtengo da autobusa, 16:20ean. Tikitak Guridi tabernan erosi daitezke.



## Kiroldegietako atezainek greba egingo dute asteburu honetan ere, gaurtik hasita

Unbe eta Ipuruako atezainek aurreko zapatuan hasitako grebak asteburu honetan jarraituko du, beste hiru egunetan greba egitera deituta daude-eta, gaurtik hasi eta domekara bitartean. Aurreko astean egindako elkarretaratzean aurreratu zuten, Eibarko Udalak kudeatzen dituen bi kirolguneetako langileen lan-baldintzak hobetu ezean, hilaren 31tik aurrera greba mugagabea hasiko dute.





## Hamabi eguneko greba zikloari ekin diote hezkuntza publikoan Jaurlaritzaren gutunari erantzun gisa

Hamabi lanuzte deitu dituzte uni-bertsitatez kanpoko hezkuntza-zentroetan, eta eguaztena izan zen lehen greba eguna. Sindikatuen arabera, EAEko irakaskuntza publikoko irakasleen hiru laurdenean (%75ek) egin dute bat LABek, Steilasek, ELAk eta CCOOk deitutako grebarekin. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak, bere aldetik, jarraipena askoz txikiagoa dela adierazi du, %48 ingurukoa. Sindikatu deitzaileek (LABek, Steilasek, ELAk eta CCOO) jakinarazi dute-

nez, grebaren jarraipena “zabala” izan da. Emandako datuen arabera, EAE-ko hiru hiriburuetak hainbat eskolatan ia erabatekoa izan da jarraipena. Hezkuntza Sailak eskola publikoan seme-alabak dituzten gurasoei gutuna bidali zien, “deituta dauden greba egunek gurasoengan sor dezaketzen kezka ulertzen dutela” eta hezitzaileen lan-baldintzak hobetzeko “ahalegin sendoa” egiten urteak daramatatzatela esanez, eta sindikatuek erasotzat hartu dute.

## Entregatu dute Txistorra Egunean zozketako sari nagusia

Atzo banatu zuten iazko Txistorra Egunean zozketatutako sari nagusia, 200 euroko balioa duen erosketatartela. Amaia Garate izan da sariduna, eta argazkian Oberena harategiko Juanma Jimenezekin eta Angel Lopez Eibarko Txirrindulari Elkartearen presidentarekin batera dago, saria jasotzen.



## Domekan egingo da urteko lehen zuhaitz landaketa

Eibarko Baso Biziak elkarteak urteko lehen zuhaitz landaketa egingo du domekan. Sorginbasora joango dira zuhaitzak landatzera eta, horretarako, 09:30ean elkartuko dira Unben (bukaeran). Ekimenean parte hartu nahi duenak nahitaez eman beharko du izena aurretik. Beraz, parte-hartzaileen izen-abizenak, bakoitzaren adina eta telefono zenbaki bat zehaztu beharko dira, eibarkobasobiziak@gmail.com helbidera bidali behar den mezuan.



## Urkizuko iturria konponduko dute

Iazko abenduaren 20an Urkizuko iturriak jatorri ezezaguneko kolpea jaso zuen, eta horrek kalte handiak eragin zizkion eskuineko aurrealdeko erlaitzaren erremate-piezari, baina Udalak kaltetutako pieza konponduko du, teknika espezializatuak erabiliz.

# San Blas opilen lurrina hasi da herriko kaleetan zabaltzen



Egun hauetan martxa beteak ibiliko dira herriko etxeetako labeak eta anis usaina ere ez da faltan izango. Izan ere, ate joka dugu otsailaren 3an ospatuko den San Blas eguna, eta asko dira tradizioari eusten dioten eibartarrak. Opila egiten ez dakitenak ere lasai egon daitezke, bihar bertan Arrate Kultur Elkartean ikastaroa egingo baitute. Gero, ohikoa denez, San Blas egunean opilak bedeinkatu ahal izango dira herriko elizetan.

**A**urten astelehenean tokatuko zaigu San Blas eguna ospatzea. Egun berezia da eibartarrentzat eta askok dute San Blas opilak bedeinkatzeko ohitura. San Andres eliza obretan dagoenez, herrian egiten diren elizkizunak tokiz aldatu dituzte eta opilen bedeinkapenak non eta noiz egingo diren jakiteko Pedro Laskurain parrokoarekin harremanetan jarri gara.

Parrokoak azaldu digunez, “goizeko 11:00etan ospakizun bat egingo dugu San Blas opilen bedeinkapenekin Karmengo elizan. Urtero egin ohi da goizez eta aurten ere horrela egingo dugu”. Ez da meza izango, ospakizuna baizik. “Liturgia bat Sanblasen bedeinkapenekin”, zehazten du Laskurainek.

Arratsaldean, ostera, mezak egingo dira eta bertan ere opilak bedeinkatzeko aukera egongo da. “Bai San Agustinen bai Karmengo elizan meza egingo da betiko orduan, 18:00etan San Agustinen eta 19:00etan Karmengo elizan,

eta gero opilen bedeinkapena”, argitu digu parrokoak. “Bestalde, hiletaren bat egongo balitz, hileta Karmengo elizan egingo genuke (San Agustinen ez da hiletarik egiten) eta gero opilen bedeinkapena berdin-berdin”, zehazten du.

## Opilak egiten ikasi

Herriko hainbat okindegitan dago San Blas opilak egiteko aukera, baina batzuek nahiago dute eskuak orean sartzea eta, trebezia askorekin (batzuek gehiago eta beste batzuek gutxiago) opilak egiten dituzte.

San Blas opilen errezeta belau-naldiz belaualdi iritsi da gaur egungo sukaldeetara eta, oraindik opilak egiten ez badakizue, lasai egon: Arrate Kultur Elkarrekin ikastaroak antolatu ditu, baita aurten ere. Bihar, hilak 25, Eduerne Zenarruzabeitiak gidatuta, San Blas opilak egiteko ikastaroa egingo dute Kultun, 11:00etan hasita. Bertan parte hartzeko beharrezkoa izango da izena ematea, eta arrate-



Herriko ohitura errotuenetakoa da San Blas opilak egin eta bedeinkatzearena.

kultu@gmail.com helbidera idatzita edo 638 284 912 telefonora deituta egin daiteke. Parte-hartzaileek 5 euro ordaindu beharko dute (Kultuko bazkideentzat doan izango da).

Arrate Kultur Elkarteak antolatutako ikastaroan parte hartzeko aukerarik ez baduzue, hurrengo orrialdean aurkituko duzuen QR kodea eskaneatuz Edurne Zenarruzabeitiarekin egindako bideora joko duzue. Bertan, opilak egiteko egiteko errezeta dago.

**ISASI OKINDEGIA** **DENDAK**  
 - Ego-Gain, 2 943 20 23 40  
 - Zabaleta Bidebarrieta, 10 943 20 02 25  
 - Elgetako bidea 9  
**LANTEGIA** 943 70 07 77

**ITXESI** BIDEBARRIETA, 6 Tel. 943 203219  
 Sanblas tradizionalak, integralak eta gluten gabekoak

**ANTXON**  
 GOZOTEGIA T. Etxebarria, 13 943 206 322

Sanblasak, pastelak, **Kalitatezko produktuk dastatu nahi?**  
 ogia, kafea, edariak, pintxoak... **HEMEN DUZU AUKERA!**  
**Legarre, 19**  
**tarte** 943 53 87 87

TIBURZIO ANITUA, 6 Tel. 943 20 04 04  
**Lubizarreta**  
 Panaderia Okindegia  
 Ama ore naturalarekin egindako ogia, sanblasak etab.



# San Blas opilak egiteko errezeta

Edurne Zenarruzabeitiak emango du San Blas opilak egiteko ikastaroa Arrate Kultur Elkartearen, eta berak eman zigun **errezeta sei pausotan** laburbildu dizuegu. Nahiago baduzue, **bideoan** ere ikus dezakezue gure YouTube kanalean, QR kodea eskaneatuz.

## OSAGAIAK (6 opil egiteko)

- Dozena bat arrautza (hortik hiru zuringo hartu)
- Irina: 2 kg
- Azukrea: 750 g
- Legamia: sobre bat
- Koipea edo gurina: 150 g
- Anis esentzia: hodi bat

BIDEOA



**1-** Osagaiak ondo nahastu eta oratu katilu batean. Irina pixkanaka joan botatzen eta, pixka bat gogorra dagoenean, estalki edo mahai gainean irina ipini eta nahasketa bertan bota.



**4-** Bi opil laban sartzeko prest daudenean, laba berotzen jarri (180°). Bitartean, blanketa egin: hiru zuringoak elur-punturaino irabiatu. Azukrea bota eta 10 minutuz irabiatu.



**2-** Masa egin, eskuekin ondo nahastuz. Irina gehitzen joan, masak eskatzen duenaren arabera. Masa estalkian, mahai edo eskuetan pegatzen ez denean, ondo egongo da.



**5-** Laba bero dagoenean, forma duten masa zatiak sartu 20 minutuz. Laba guztiak berdinak ez direnez, begiratzen joan behar da eta, zure gustura txigortzen denean, atara.



**3-** Masa sei zatitan banatu eta forma eman. Forma emateko, irina bota eta botila edo arrabolarekin masa zabaldu.



**6-** Labatik ateratzean, opilak mahaiaren gainean jarri, eta hoztu baino lehen gainean zuria jarri koilararen atzeko aldearekin. Lehortzen laga ordu batzuetan.

# Pentsioak Lanbide Arteko Gutxieneko soldatarekin parekatzea helburu

Debabarreneko pentsiodunek manifestazio jendetsua egin zuten zapatuan Eibarren, eta ondoren laurogei bat lagun elkartu ziren Errebalen, herri bazkariarekin zazpi urteko borroka ospatzeko.

Argazki gehiago ikusteko, eskaneatu kodea



Bideoa gure YouTubeko kanalean ikusgai





IMANOL MAGRO

## Beldurraren trapitxeroak

Duela hilabete pare bat gertatu zitzaidan. Arrazoi pertsonalengatik jasotzen nituen telefono dei guztiak hartu behar izaten nituen, baita ezagutzen ez nituen zenbakietakoak ere. Astebeteko epean etxean segurtasun alarma jartzeko hiru eskaintza jaso nituen: nire orduko telefonia konpainiarena, banku batena eta supermerkatu kate ezagun batena. Inoiz ez zitzaidan burutik pasa ere egin jartzetik, eta eskaintzek harritu ninduten.

Hedabideetan alarma iragarkiek duten tokia aztertzen hasi nintzen. Telebistako goizeko programetan, irrati magazinetan, egunkarietan... Izugarri hedatu dira. Hor negozioa ikusi du norbaitek. Alarmak saltzeko, baina, beldurra sortzea ezinbestekoa da. Beldur ez denak ez baitu alarमारिक erosiko.

Eta nola erein beldurra? Estatistikek argi diote delinkuentzia behera egiten ari dela Euskal Herrian, eta ziberdelituengatik ez balitz lapurretek asko egin dutela behera azken urteetan. Salbuespena Donostia eta Bilboko gune oso turistikoetako lapurreta txikiak dira. Beraz, objektiboki, lapurretarik ez jasateko neurri eraginkorrena Internetez ez erostea da.

Baina beldurrak trapitxero onak ditu. Hedabideez gain, zenbait alderdi politiko, auzokide elkarte, eta polizia sindikatu ere hor daude, ustezko segurtasun gabeziaren aitzakian agente kopurua handitzeko eskatuz. Pentsa, ETAre eta heroinaren izurriteak eragiten zuen eguneroko delinkuentziaren garairik okerrenetan baino polizia gehiago behar direla diote. Eta noski, hori guztia arrazakeriaren saltsarekin zipriztindua.

Trapitxeroen nahia haien diskurtsoa erostea eta etxean gure bunkerra erostea da. Behar eta mamu faltsuak sortzea merkatu estrategia zaharra da, eta kasu honetan komunitatea suntsitzeko duten ahalmena, izugarria. Alarmen atzean arazoei konponbide indibiduala ematearen filosofia dago, eta modu kolektiboan ez garatzearena. Bizilagunei etxeko giltzen kopia bat uztearen ohitura zergatik galdu da? Martxa honetan bizilagunengan genuen konfiantza ere galduko da, eta hori da hain zuzen herriak berezi egiten dituen.

**“ETAre eta heroinaren izurriteak eragiten zuen eguneroko delinkuentziaren garairik okerrenetan baino polizia gehiago behar direla diote. Eta noski, hori guztia arrazakeriaren saltsarekin zipriztindua”**





Bittor Sarasketa Suinaga ehiztari handia zen, plater-tiroa ere oso gustukoa zuen. Bittor Sarasketa Basterrika semea munduko ehiztaririk onenatariko bat izan zen. EIBARKO UDAL ARTXIBOA

Bittor Sarasketak sortu zuen eskopeta lantegia. Azpiri baserrikoa zen. Agustin anaia bizi zen berarekin. Ehiztariak ziren eta txakurrentzat jateko bila joaten ziren harategira. Basurdetara joaten ziren. Basurdeak nola ekartzen zituzten kotxean.

## Bittor Sarasketa basurdetara joaten zen

**Ladislao Basauri Arzuaga**  
(1917 – 2009)



Bittor Sarasketa kalean jaiotakoa; aitak harategia izan zuen bertan. La Salle ikastetxean egin zituen ikasketak eta gazte-gaztetatik abertzaletasuna barru-barrutik bizi izan zuen. Ongi ezagutzen zuen gerra aurreko eta ondorengo giro politikoa; zer esanik ez abertzaletasunak herrian izan duen garapena.

**Ladislao Basauriri grabatutako pasarteetako baten transkripzioa**

[Eta enpresia zeiniek fundau zeban?] Bitor Sarasketak, basarrikua, Azpirikuak, hor Matsari gaiñekuak. Ta gero berakin bizi zian, zera, Agustin, anaia berana Bitorrrena, mutilzaharra. (...). A! Ni etxeko nitzan. Karnazerixia, ta txakurrak zekezen ba, ta txakurreri jatekua emotera, ba, karnazerixatikan, tripakixak garbitzen zianian-ta, txakurrendako. [Bera kazarixa izango zan, ez?] Buu! Basurdatara-ta ibiltzen zian orduan. Ta ekartzen zittuenian, ekartzen zittuen zerian, kotxian zerian, guardabarrosan onduan holan ipinitta zerak. Gogorak zian orduan denporetan! Kotxia eurak bakarrik, e! [Bai, Eibarren gitxiak eukiko zeben, ez?].

# Inoizko aurrekonturik handiena onartu zuten aurreko barixakuan

55.798.189,99 euroko zenbatekoarekin, hasierako onespena eman zion Udalbatzak 2025. jardunaldirako Aurrekontu Orokorrari. Hilaren 17ko ezohiko bilkuran PSE-EEK eta EAJ-PNVk aldeko botoa eman zuten (14 guztira, zortzi eta sei hurrenez hurren), eta kontra bozkatu zuten EH-Bilduk eta Elkarrekin Podemosek (zazpi bien artean, sei eta bat).

**O**raingoan, gainera, aurrekontuen alde egin duten bi alderdien arteko akordioari esker, azken urteotan baino lehenago onartu dira kontu horiek. Iaz, esaterako, apirilaren 10ean egin zen Udal Osoko Bilkura, eta orain dela bi urte martxoaren 22an. 2021ean nahiko arin onartu zuten, aurtengoaren parean, urtarrilaren 15ean hain zuzen. Baina aurreko urteetan beti izan da otsailetik apirilera arteko tarte horretan; apirilaren 12an, esaterako, 2017an.

## 10 urtetan ia bikoitza

Azken hamarkadan, 2015etik hona, Eibarko udal aurrekontuetako kopurua ia bikoiztera heldu da, 2015eko ia 31 milioi eurokoa orain onartu berrirainoko ia 56 milioiraino iristeko. 2015etik 2018raino ez zen horrelako aldaketarik nabaritu, baina 2019tik aurrera goranzko joera erakusten du, igoera hori uniforme ez bada ere; esate baterako, 2020tik 2021era 7 milioi euroko jaitsiera eman zen, batez ere inbertsio kopuruan islatzen zirenak. Pandemia sasotik aurrera igoera

na barmena eman da aipatutako aurrekontuetan, urtez urte adierazten direnak, aurtengo kopurura iristeraino, orain arte gure herriko Udalak izan duen handienara iristeko. Aurten, gainera, inbertsioen kopuruak ere gora egin du, argi, inoizko handiena bihurtzeraino: 13 milioi euroak pasata.

## Sareren arloa

Aurrekontuaren sarreretan, Transferentzia arruntek ia arlo horretako partidaren erdia hartzen dute, 27 milioi eurotik gorako kopuruarekin.



Aurreko urteetan baino arinago onartu dira aurtengo udal aurrekontuak.



B. Sarasketako epaitegi zaharrean 25 etxebizitza egingo dira.

Atzetik daude Finantza pasiboak (9 milioi eta erdi), Zuzeneko zergak (8 milioitik gora), Kapital transferentziak (5 milioi eta erdi) eta Tasak eta bestelako zergak batzen dituen atala (3 milioi eurotik gora).

Iaz onartutako aurrekontuan baino 7.220.643,76 euro gehiagoko diru-sarrerak aurreikusten dira. Gehikuntza hori, funtsean, 24.412.701 eurokoa den aurreikusitako Foru Funtzari zor zaio. Eta kapital-transferentziek ere izango dute hor zeresana, oraingoan 10.943.839,79 eurokoa, 2024an bakarrik 835.598,36koa izan zenean; erakunde publikoetatik datorren diru horretan Eusko Jaurlaritzatik datorrena da nagusi. Azkenik, 2024an tokiko zergen igoera %2,6koa izan bazen, lehen aldia izanik hamarkada batean udal-gobernuak horrelako erabaki bat hartzen zuela, 2025ean berriro egin dituzte goranzko egokitzapenak tokiko zergetan, kasu honetan %4koak.

### Gastuen atala

Arlo honetan hiru partida dira pisu gehien hartzen duten arloak, hiruren artean %85era iritsita. Onda-

## >>> Transferentzia arrunten partida da garrantzitsuena diru-sarreretan; gastuenean, ondasun arrunt, zerbitzu eta pertsonalekoak

sun arrunt eta zerbitzuetako gastuak ia 18 milioi eurora heltzen dira (17.938.856), pertsonalarenak oso gertu dauden bitartean (17.807.826). Inbertsio errealek ere badute euren pisua, 13 milioi eurotik gorako kopuruarekin. Azkenik, transferentzia arruntak ere ez dira ahaztekoak (6 milioitik gora).

Euskararen atalari dagokionez, 2024an ia milioi bat eurokoa izan bazen Udalak gure hirian euskararen erabilera eta irakaskuntza sustatzeko egindako inbertsioa, oraingoan Udalak egindako inbertsioa 1,4 milioi eurotik gorakoa da.

## azken hamarkadako datuak

URTEA	AURREKONTUA	INBERTSIOAK
2025	55.798.190	13.064.121
2024	50.604.770	8.017.685
2023	47.238.430	7.370.803
2022	43.263.280	7.350.782
2021	38.471.119	4.071.995
2020	45.951.342	10.962.555
2019	39.007.467	9.436.195
2018	32.357.193	5.624.008
2017	33.078.571	5.624.180
2016	33.298.125	6.956.767
2015	30.840.384	5.227.913

### Testuinguru berria

PSE- EEK eta EAJ- PNVk 2024an koalizio-gobernu bat eratzeko lortutako akordioaren emaitza da oraingo aurrekontua. Haren ondorioz, EAJ-PNVren zinegotziak udal-gobernuan sartu dira berriki, hainbat arlotan gobernu-ardurak hartuz. Horrez gain, badira bi puntu pisu berezia hartu dutenak onartutako aurrekontuetan: alde batetik, Next Generation Funtzak, eta Debabarrena Lehenengoko Jardutako Eremuarekin lotutakoak bestetik.

Lehenengoko alorrean, Ubitxa eta San Kristobal auzoak lotzen dituzten bi igogailuak neurri handi batean Funtz horiek finantzatutakoak dira. Bestalde, gaur egun beste hiru ari dira gauzatzen: Torrekua ambulatorio zaharra birgaitzen dihardute, bertan Amañako nagusientzako zentro berria aurtengo azken hiruhilekoan amaitzeko asmoarekin; Txonta auzoko eraikin askoren birgaitzea ere aurten amaitzea espero da; eta hor dago baita Estaziño-Azitaín arteko trenbidearen estaldura ere.

Bigarren goari dagokionez, Debabarrena eskualdea Lehenengoko



Jarduketa Eremu izendatzeak aukera emango die udalerriei Eusko Jaurlaritzatik eta, hala badagokio, Gipuzkoako Foru Aldunditik finantziario osagarria lortzeko. Jaurlaritzak 24 milioi euro bideratuko ditu proiektu horretarako datozen lau urteetan (7na milioi 2025ean, 2026an eta 2027an, eta beste 3 milioi gehiago 2028an).

Horrela, 2024ko uztailean martxan jarri zuten, batetik, udaletxearen atzealdetik erdialdea eta Legarre lotzeko proiektuaren lehenengo igogailua; eta, bestetik, Barakaldo kalea eta trenbidearen eta Elektrozikloren gaineko pasealekua lotuko dituen igogailuaren obrak ere hasi zituzten. Amañan, azukoa adinekoen zentro sozial berriaren obrak hasi zituzten eta Bustinduitarren kalea eraberritu; Jardineñtan, lehendik zegoen aparkalekua handitzen hasi ziren; eta, azkenik, Hijos de Gabilondo birgaitzeko eta ingurua hobetzeko lanekin hasi ziren, Barrena kalean. Ahaztu gabe Jardineñtako igogailu berria edo Arragueta kalearen berrurbanizazioa, biak 2025erako aurreikusitak, edo Txonta kalearen berronertze globala.



Estaziño-Azitaín arteko trenbidearen estalduran erabili dira Next Generation Funtsak.

## >>> Lehentasunezko Jarduketa Eremu izendatuta, aukera berriak eskainiko zaizkio Debabarrenari

### Etxebizitza babestuak

Udalak eta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak epe laburrean gure herriak etxebizitza babestuen parke handiagoa izan dezan ahalginean dihardute. Arlo horretan bost esparrutan hasi dira lanean: Jaurlaritza egiten ari den Bittor Sarasketa kaleko epaitegi zaharren birgaitzean, gazteentzako 25 etxebizitza berri sortuko dira guztira. Jaurlaritzaren esku ere badagoen Egazelaiko Babes Ofizialeko Etxebizitzaren eraikin berri babestutako 30 etxebizitzatik gora sortuko dituzte. Udalak Eusko Jaurlaritzari lagako dio Barrena kalean erosi zuen Lapeyra industria-erakin zaharra ere, babes ofizialeko 25 etxebizitza berri egiteko. Gauza bera Txontan dagoen Aibe industria-erakin zaharrarekin, gazteentzako 40 etxebizitza berri inguru egiteko. Eta, azkenik, Jaurlaritzak Txontan Babes Ofizialeko 200 etxebizitza eraikitzeko duen makroproiektua dago: horretarako, Udala Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aldaketa puntuala amaitzen ari da.



Torrekoa anbulatorio zaharra birgaituta, nagusientzako zentro berria eraikiko dute.

# Koalizio-gobernuko en aldeko 14 boto eta oposizioko zazpiren kontrakoekin

Aurtengo ekitaldirako Udaleko gobernu-taldeak aurkeztutako aurrekontu-proposamena onartu ala ez, hori erabakitzeko ezohiko bilkura egin zen aurreko barixakuan Udaltzatza. Aretoan. Talde guztietako bozeramaileek beraien azalpenak txandaka eman ondorengo botazioan ez zen ezustekorik egon: aurtengo udal kontuak PSE-EEren (8) eta Eibarko EAJ-PNVren (6) aldeko botoekin atera dira aurrera. Eta oposizioko bi taldeek, Eibarko EH Bilduk (6) eta Elkarrekin Podemos Eibarrek (1), kontrako botoa eman dute oraingoan. Horrela, Udalaren Osoko Bilkurak hasierako onarpena eman die 2025eko ekitaldirako aurrekontu orokorrari eta dagozkion eranskinei, 55.798.189 euroko zenbatekoarekin. Aurreko urteko aurrekontuarekin (50.604.770 euro) alderatuz gero, igoera nabarmena dago.

## Ordezkarien debata

Aurrekontuen inguruko debata Isabel Fernandez Pejenaute Elkarrekin Podemos-eko ordezkariak zabaldu zuen. Bere berbetan, “aurrekontu hauetan, beste behin, porlana eta adreilua gehiago gailentzen

dira osagai soziala baino. Horren adibide gisa, partidarik handiena Hijos de Gabilondoren eraikina zaharberritzera bideratu dela aipatu daiteke. Aurrekontu kontinuitatek dira eta eibartarren benetako arazoak ez dituzte konpontzen”.

Arantza Mata EH Bilduren bozeramaileak, bestetik, aurrekontuen inguruan berba egiteko aukerarik ez dietela eman aurpegiatu zion gobernu-taldeari: “Legealdiko bigarren aurrekontuak onartzeko udaltzatza honetan, esan behar dugu PSE-PNVren gobernuak aurrekontuetan alde batera utzi duela hiriko bigarren indar politikoa, eta herritar askoren ahotsa. Ez duzue inongo aukerarik eman, ezta gertutasun izpirik erakutsi ere aurrekontuei buruz hitz egiteko, aurrekontuak partekatze eta akordioetara iristeko, zuen jokatzeko modua abenduaren 7tik aurrera argi ikusi dugu, gainera inongo disimulorik gabe”.

Alberto de la Hoz EAJ-PNV udaltaldearen bozeramailea aurrekontu-proposamenarekin pozik azaldu zen: “Gure taldeak zuzentzen dituen sailetarako hobekuntzak sartzea lortu dugu eta, horri eskerrak, he-

rriaren onerako izango diren hainbat neurri martxan ipintzea posible izango da”.

Karguari uko egin aurretik talde sozialistaren izenean berba egin zuen Ana Telleriak herria hobetzeko egingo diren inbertsio eta proiektu nagusiak aipatu zituen, “kolektibo ezberdinen mesedera” izango direla gaineratuta. Eta, oposizioaren kritikei erantzunez, “aurrekontuen inguruan irakurketa zabalagoa” izan behar dela adierazi zuen.

## Dokumentazioa Interneten

Behin hasierako onespina emanda, herritarrek 15 egun balioduneko epea izango dute aurrekontuari buruzko erreklamazioak aurkezteko, iragarkia GAOn (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala) argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera. Alkatetzaren Memoria eta bestelako dokumentazio guztia (udal-aurrekontua kapituluka, diru-sarreraren eta gastuen aurrekontua eta dirulaguntza izendunei buruzko eranskina) eskuragarri daude Interneten, Udalaren webgunean, 2025eko aurrekontua izeneko azpiatalean.



EH-Bilduk kontrako botoa eman zuen, EAJ-PNV alde agertu zen.



PSE-EEkoek onartutako aurrekontuari ezezkoa eman zion Podemosek.

# “Taldeko kideen arteko harremana da The Vartoolsek duen gauzarik onena”

ION LARREATEGI ETA BORJA ETXEBERRIA • *The Vartools*



Lehen diskoa argitaratu zutenetik ia 10 urte pasa direnean bigarren lana kaleratu du gaur The Vartools talde eibartarrak. Harrezkero, bizipen ugari izan ditu Ion Larreategik, Borja Etxeberriak (lehen bi hauekin egin dugu elkarrizketa), Mikel Gaugerrek eta Fran Retenagak osatzen duten taldeak, baina ez du hasierako esentzia eta indarra galdu. Bidean taldekide egin zen Walter Tuzzeo maitatua galdu duten arren, disko berriak bere eskua darama.

**A**wesome da The Vartools taldearen disko berriaren izenburua. Irailaz geroztik abestiak banan-banan joan dira argitaratzen eta gaur, azken kanta kaleratzearekin, diskoa bere osotasunean aurkeztuko dute. Lana plataforma digitaletan dago entzungai, baina ez dute baztertzin biniloak ateratzea. Gainera, aurki kontzertuen daten berri izango dugu.

**Poliki-poliki joan zarete diskoaren abestiak argitaratzen. Gogotsu zaudete behingoz diskoa bere osotasunean kaleratzeko?**

BORJA: Bai, gogoia dugu diskoa osorik kaleratzeko eta jendeari zer iruditzen zaion jakiteko. Abestiak banan-banan kaleratu ditugu eta jendeak kantuak bakarka baloratu ditu, baina ez da gauza bera dena osorik edo abestiak banaka entzutea.

**Zergatik egin duzue horrela?**

ION: Printzipioz, gure asmoa ez da CD bat argitaratzea. Beraz, gaur egun egiten dena eta adituek diotena begiratzen ibili gara, eta ikusi genuen abestiak denboratarte batekin kaleratzen joatea dela joera. Horrela egiten hasi ginen irailean, lau abesti kaleratu genituen, gero etenaldia egin dugu abenduan, urtarrilean ‘Bele

txuria’ kanta argitaratu dugu, The Vartoolsen lehen abestia euskaraz, eta orain disko osoa argitaratuko dugu gaur bertan. Beraz, kaleratzeko falta den azken abestia bertan aurkituko duzue. Sorpresatxo bat da.

**Nolako sorpresa izango da?**

ION: Apropos laga dugu abesti hau amaierarako, guretzat berezia izan delako hasieratik eta eibartar moduan harrotasunez hartzen dugulako. Su Ta Gar taldearen ‘Mari’ abestiaren bertsio bat da. Urteetan zuzenean jo izan dugu (2014 edo 2015eko Legarreko jaietan jo genuen lehendabizi) eta, Walterri egindako omenaldira begira, Aitor Gorosabeli galdetu genion ea ‘Mari’-ren bertsioa argitaratu ahal genuen eta, bestalde, omenaldian parte hartuko zukeen. Orduan lokalean gurekin entseatzen egon zen eta Untzagan elkarrekin abestu genuen. Demaseko esperientzia zoragarria izan zen guretzat.

**Beraz, euskarazko bi abesti izango ditu diskoak.**

ION: Hori da. Guztira sei abesti izango ditu eta bi euskaraz izango dira. Beraz, aldaketaren bat ari da gertatzen. Erantzuna positiboa izan da.

**Abestiak kaleratzen joan zareten neurrian entzuleen iritziak jakin ahal izan dituzue. Zer diote?**

BORJA: Egia esan, jendea diskoa osorik kaleratzeko





Hasierako lau kideek jarraitzen dute The Vartools taldean, baina ez dute ahazten bidean adoptatu zuten Walter Tuzzeo. JOSU TORREALDAY

zain zegoen. Batzuek biniloak, kamisetak eta kontzertuak ere eskatu dizkigute.

ION: Borjak esan duen moduan, ez da gauza bera abestiak banaka entzutea edo diskoa osorik.

**Bestalde, egia ere bada musika entzuteko ohiturak aldatu egin direla.**

BORJA: Horregatik egin dugu horrela, jendeak abesti solteak entzuten dituelako. Abesti bat hartu, erreproduzio-zerrendan sartu eta agian ez duzu talde horren abesti gehiago entzuten.

ION: Gu, oster, pixka bat kontrara goaz. 70. eta 80. hamarkadetako rock klasikoa jotzen dugu eta, gaur egun berehalakotasuna eta gauza motzak bilatzen bada, gure abestiak 5 minutukoak dira. "Zeinen luzea egin zaidan abestia", esan izan dit aitzak, 7-8 minutuko abestiak dituzten Led Zepellin eta Deep Purple bezalako taldeen zalea izanda! Zelako ohitura aldaketa egon den! Dena dela, disko berriaren iraupena lehen diskoaren berdintsua da.

**la 10 urte pasa dira azken diskoa kaleratu zenutetik. Non igarri duzue aldaketarik gehien: entzuleetan, zuen musikan...?**

BORJA: 10 urtetan gauza asko pasatu dira.

ION: Lehen diskoa 2015ean argitaratu genuen eta handik hilabete batzuetara Borjak ukondoa apurtu zuen, eta jarduna eten behar izan genuen. 2016ko irailean bigarren diskoa grabatzen hasi ginen, eta bi hilabete-tan diskoaren musika grabatuta genuen... Eta orain 2025. urtean gaude eta gaur irten da diskoa (barreak). BORJA: Zortzi urte behar izan ditugu disko osoa sortzeko.

**Su txikian egindako lana.**

ION: Tarte horretan taldekideok hiru seme-alaba izan ditugu, pandemia bat...

BORJA: Eta gero, Walterrena. Demaseko kolpea izan zen.

ION: Gure pianista, kide eta teknikaria joan izatea pizgarria izan da guretzat, zerbait egin behar genuela argi laga zigulako. Diskoa Walterrek grabatu zuen, bere ordenagailuan zituen pista guztiak eta esnatu behar genuela konturatu ginen. Konturatu ginen bizitza honetan ezer ez dela betirako. Beraz, arrankatu egin genuen.

BORJA: Moduren batean, berarentzat amaitu nahi izan dugu diskoa.

Elkarrizketaren  
BIDEOA

### **Beraz, amore eman beharrean, azken bultzada eman zizuen gertaera horrek.**

ION: Bitxia da, baina sei abestietatik bosten ahotsak, melodiak eta abar grabatuta genituen, eta batek bakarrik ez zuen letrarik, estribilloa bai ordea, eta zera zioen: "This life is long enough to realize how short it is" (Bizitza aski luzea da zein motza den konturatze-ko). Ez zuen estrofarik edo beste mezurik, estribillo hori bakarrik. Ez genekien nola bete eta Walter joan zenean, "mezua hor zegoen" pentsatu genuen. Horregatik, 'B.I.G.' izenburua jarri genion abestiari, raperoek Big Walter esaten ziotelako.

BORJA: Letra zenbat egunetan egin zenuen?

ION: Di-da batean. Idazten jarri, negar batean, eta sei urtetan atera ez zen letra bat arratsalde batean irten zen.

BORJA: Gero, abestia lokalean grabatu genuen, gure modura. Ikusiko balu, Walter sutan jarriko litzateke (barreak).

ION: Ahotsak Walterrek grabatutako instrumentuen gainean jarri genituen, eta Iruñeko Erviti estudioan egin genuen azken nahasketa eta masterizazioa. Horrela irten da Awesome.

### **Eta izenburu hori, zer dela eta?**

ION: Diskoko abesti baten izena da.

BORJA: Lan honetarako egin genuen lehen abestia izan zen eta, bere sasoian, gure asmoa Awesome 1, Awesome 2 eta Awesome 3 ateratzea zen (barreak).

ION: Awesome ateratzen zazpi urte iraun badugu, pentsa bigarrena noiz aterako den (barreak). Izenburua zergatik jarri genion ez dakit. Abesti hori bai da besteak baino funkyagoa, jai-giro mistiko-lisergikoa du, eta berezia, dibertigarria eta alaia da. Zoragarria edo miresgarria iruditzen zaigu, eta horregatik jarri diogu horrela.

### **Nola bizi duzue musika? Musika zer da zuentzat?**

ION: Musika nahiko antzera sortzen eta ikusten dugu taldekideok, horregatik eduki dugu hain harreman ona. Hasieran gu laurok geunden, lehen diskoa grabatu ondoren Walter adoptatu genuen eta, bere eraginaren ondorioz, gure buruari presio gehiago sartzen hasi ginen



kalitateari eta hobekuntzari begira. Musika zen bere ogibidea eta guretzat, ostera, zaletasuna eta ametsa zen, eta gainera oso ondo pasatzen genuen. Orduan, entseguetan ez genuen abesti bat mila aldiz jotzen perfektu irten arte, baizik eta abesti batetik bestera pasatzen ginen gogoak ematen zigun bezala. Kanpoko gauzak ahaztu eta lokalean deskonektatzeko modu bat zen. Orain, ostera, Walter joan denetik, berriz ere eszenatokietara itzultzen saiatu garenean, abesti bat hartzen dugu eta bi ordu ematen ditugu berarekin perfekzioa bilatzen.

BORJA: Urte batzuetan zehar taldea guztiz geldirik egon da. Ni neu beste proiektu batzuekin ibili naiz, Mikel Madrilen bizi da...

ION: Eta geratzen ginenean ez zen modu perfektuan jotzeko izaten, baizik eta garagardo batzuk edan, ondo pasatu eta zerbait jotzeko.

BORJA: Hori bai, gure arteko harremana ez da galdu.

ION: Elkarrizketa batean esaten genuen musikariak baino lagunak ginela, eta Borjak zera esan zuen: "Eta tontoak lagunak baino gehiago". Gure arteko harremana da The Vartoolsek duen gauzarik onena eta eszenatokian, konposatzeko momentuan eta taldea kudeatzeko eran igartzen da.



## Ituiñoren magia-ikuskitzunerako gonbidapenak astelehenetik aurrera banatuko dira

Urtarrilaren 31n, barixakua, Imanol Ituiño magoak ikuskizuna eskainiko du Coliseoko areto handian. ...eta kitto! Euskara Elkarteak Gurasoak Berbetan eta Ongietorri programen baitan antolatu du ikuskizuna eta programa horietako familiek lehentasuna izan dute gonbidapenak jasotzerako orduan. Astelehenetik aurrera, hilak 27, nahi duenak izango du horretarako aukera. Gonbidapenak jasotzeko ...eta kitto! Euskara Elkartearen bulegotik pasatu behar da (Urkizu 11 solairuartea). Elkartetik adierazi dutenez, familian ikusteko ikuskizuna da eta haurrek helduez lagunduta egon beharko dute. Gure Zirkuko magoa ere baden Ituiñoren ikuskizuna 18:30ean hasiko da eta ordubete inguruko iraupena izango du.

## ILLUNABARRIAN

Otsaileko ikastaroa

### ILEKO GANTXOAK EGITEKO IKASTAROA

Laura Albistegi (Gigil)



#### Data eta ordua:

Otsailak 13, eguena, 18:30

**Lekua:** ...eta kitto! Euskara Elkarte (Urkizu 11)

**Prezioa:** 7 euro (5 euro elkarteko bazkideentzat)

#### Izen-ematea:

943200918/  
elkartea@etakitto.eus

Plaza mugatuak



## Arratsalde pasa ederra izan zuten familia berbalagunek pizza-tailerrean

Joan den barixakuan pizza-tailerra antolatu zuen ...eta kitto! Euskara Elkarteak Gurasoak Berbetan programako familientzat. Ortutik Ahora elkarteko Sergio etorri zen oraingoan ere, eta gertuko eta bertoko produktuak erabiliz pizza osasungarriak eta gozoak egin zituzten tailerrean izena eman zuten familiek. Bertan egin eta jandako pizez gain, tailerrean egindako oreka etxera eramateko aukera izan zuten, hurrengo egunetan etxean ere pizzak egin ahal izateko.



## Barixakuak Jolasian Torrekuako parkean izango da gaur

Joan zen barixakuan Txaltxa Zelai inguruan ekin zion urteari Barixakuak Jolasian ekimenak. 2 eta 8 urte bitarteko haur igari azaldu ziren eta ordubetean jolas dibertibariak egin zituzten begiraleen laguntzarekin. ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatzen duen ekimena Torrekuako parkean izango da gaur, 17:00etatik 18:00etara, eta hurrengo barixakuan, urtarrilak 31, Urkizukoan.



## Urkotik Eibar argizatuko dute Deporren mendeurrena amaitzeko

Urtarrilaren 30ean amaituko dira Eibarko Klub Deportiboaren mendeurrenaren inguruan prestatutako ekitaldi guztiak. Eta, urtemuga horri behar bezalako amaiera emateko, 2024ko urtarrilaren 30ean mendeurrenari ekiteko eman zitzaion hasiera ikusgarriari jarraipena ematea erabaki dute klubekoek. Orduko hartan ondo gogoratzeko moduko irudia sortu bazen, Urko argizatuz, oraingoan Urkotik Eibar argizatzea pentsatu dute, horretarako eibartarron laguntza eskatuz. Untzaga plazan 400 lagun biltzeko asmoa dute antolatzaileek, bertan Deporren logoa sortu eta argiztatzeko. Beraz, datorren asteko eguean, hilaren 30ean, parte-hartzaileei dei egiten zaie Txaltxa-Zelain batzeko arratsaldeko 18:30ean; ekimenak ordubete iraungo du, 19:30ak arte, eta beharrezkoa izango da kopetako argi bat edo linterna



lazko urtarrilaren 30ean Urko argiztatu zuten bezala, orain Eibar argiztatzeko asmoa dute.

bat eramatea. Izena emateko Eibarko Klub Deportiboko formularioa bete behar da.

Helbide honetan aurkituko duzuen formularioa bete behar da: <https://labur.eus/deporargitu>

## B Ohorezko Eibar Rugbyk lehen faseko partidu guztiak irabazi ditu

Aurreko asteburuan amaitu zen lehen fase hori, Mostoleseko Jabatasen aurrean eibartarren aldeko

35-0 emaitzarekin. Modu horretan, fase horretako partidu guztietan garaile izanda ekingo diote Eibar

Rugbykoek bigarren faseari, mailaz igotzeko asmoarekin jarraituz. 27 punturekin nagusitu dira armaginak, Turia - Les Abelles (25ekin) eta Olimpico de Pozueloren (21ekin) aurretik.

Euskal Ligan jokatzen duen gizonezkoen lehen taldeak, ordea, kontrako norabidea darama, eta orain arte jokatutako partidu guztiak galdu ditu, azkena Getxo Etorizunaren aurrean (41-14). Horrela, sailkapeneko azken postuan dugu, bi punturekin. Maila berean jokatzen duen Eibar Rugbyko emakumezkoen bigarren taldeak (Arrasaterekin osatzen dute taldea) 20-54 irabazi zion Gaztediri azken jardunaldian, eta sailkapeneko erdialdean daude.



Mailaz igotzeko asmoarekin jarraitzen dute Eibar Rugbykoek lehen fasea amaituta.

## Zonaldeko Gipuzkoako eskolarteko xake txapelketa jokatu da domekan



Asteburu betea izango dute xakelariek.

Gipuzkoako Xake Federazioarekin eta Foru Aldundiarekin elkarlanean, Gipuzkoako eskolarteko xake txapelketei dagokien Eibarko zonaldeko txapelketa gurean jokatu da etzi, Klub Deportiboaren egoitzan. Bestalde, martxan dagoen Gipuzkoako Taldekako Xake Txapelketaren edizio honetan Klub Deportiboko xakekoek hiru talderekin hartuko dute parte, 1. mailan talde batekin eta 3. mailan bi talderekin. Bigarren jardunaldian Eibar A-k Arrasaten 2'5-1'5 galdu zuen bertako Arrasate-Arlutzekin; eta 3. mailakoen kasuan, Eibar B-k 1-3 irabazi zion San Rokeri, Eibar C-k Goierri Xakerekin 3'5-0'5 galtzen zuen bitartean.

## Pilotak eta paletak, modalitate biek izango dute tokia gaurko Astelenako jaialdian

Arratsaldeko 18:00etan abiatuko da Udaberri Torneoeko hiru partiduko hartuko dituen Katedraleko jaialdia. Lehenengo biak eskuz pilotakoak izango dira, torneoaren eskuz binakakoak: hasteko, Errendimenduko gaztetxoaren artekoak izango da, Eibarko Arrieta-Uskola eta Lazkao-ko Irizar-Naldaiz bikoteen artean.

Jarraian, kadete mailan, Amillategi-Del Rey etxeko bikoteak Alegiko Garaikoetxea-Leo bikotearekin neurtuko ditu indarrak. Amaitzeko, gomazko paletako lehiak gozatu ahal izango dugu, 7 koadroaren barruan buruz buru izango direlako Soria eibartarra eta Andoaingo Loidi, nor baino nor.



## ASTEBURUKO AGENDA

### FUTBOLA

#### Emakumezkoen 1. Maila

SD EIBAR - Granada (bihar, 18:00)

#### Gizonezkoen 2. Maila

Elche - SD EIBAR (gaur, 20:30)

#### Gizonezkoen 2. Maila RFEF

Subiza - SD EIBAR B (etzi, 11:30)

#### Gizonezkoen 3. Maila RFEF

SD EIBAR C - San Ignacio (etzi, 17:00)

#### Emakumezkoen Euskal Liga

SD EIBAR C - Atzarrate Audio (etzi, 15:30)

#### Erregionaleko Gorengo Maila

URKI - Zestoa (bihar, 18:00)

Segura - EIBARTARRAK (bihar, 16:00)

#### Jubenilen Ohorezko Maila

Ardoi - SD EIBAR (bihar, 12:30)

#### Jubenilen Nazional Liga

SD EIBAR B - Hernani (etzi, 17:15)

#### Kadeteen Euskal Liga

SD EIBAR B - Alaves (etzi, 12:30)

### ARETO-FUTBOLA

#### Gizonezkoen Gipuzkoako 3. Maila

Irun - EIBARTARRAK (gaur, 21:30)

### ESKUBALOIA

#### Emakumezkoen Zilarrezko Maila

Lauko Ermuko - MEK EIBAR (bihar, 18:30)

#### Gizonezkoen 1. Nazional Maila

Labarra Pulpo - MEK EIBAR (bihar, 19:15)

#### Emakumezkoen Euskadiko Liga

MEK EIBAR B - Irauli Bosteko (bihar, 20:00)

#### Gizonezkoen Lurraldeko Liga

MEK EIBAR B - Arrasate (bihar, 18:15)

### FERRUGBIA

#### Gizonezkoen Euskal Ligako 1. Maila

EIBAR RT - Atletico SS

#### Emakumezkoen Euskal Ligako 1. Maila

ARRASATE/EIBAR - Elorrio

### SASKIBALOIA

#### Gizonezkoen Gipuzkoako 2. Maila

ARTES. JUANTXO - Hernani (bihar, 14:30)

#### Emakumezkoen Gipuzkoako 2. Maila

EIBAR - Añorga Saski (bihar, 16:30)

### XAKEA

#### Gipuzkoako 1. Maila

EIBAR A - Altuna y Uribe A (bihar, 16:00)

#### Gipuzkoako 3. Maila

EIBAR B - Zaleak B (bihar, 16:00)

EIBAR C - San Roke (bihar, 16:00)

### PILOTA

#### Astelena (etzi, 17:00)

1. partidua: Agirre-Ugartemendia vs Egiguren V-Bikuña

2. partidua: Altuna-Aranguren vs Laso Iztueta

3. partidua: Dela Fuente-Gaskue vs Murua-Aldabe



## Eibar Eskubaloiak aurre egin zion Bidasoari Ipuruan

Atsedendian markagailuak berdinketa erakusten zuen, 18ra. Asobal Ligako taldea aurrean izan arren, Eibar Eskubaloiak maila eman zuen eguaztenean Ipuruan jokaturako Euskal Kopako finalerdian. Ruben Fuentes etxekoan atezainak lan bikaina egin zuen eta azken hamar minututan hartu zuten aldea irundarrek, 25-28tik azken 27-34ra heltzeraino. Axier Gisasolak lau gol sartu zituen.

## Alcorconi irabazita madrildarrendandik puntu bakarrera dago Urbat-Urko tronik

Azken jardunaldian Donostiako Paco Yoldi igerilekuan jokaturako 2. Maila Nazionalako partiduan, Urbat Urkotronik-ek 9-6 irabazi zion Alcorconi, mailari eusteko bere pisua izan dezakeen norgehiagokan. Atsedendialdirako lortu zuten eibartarrek gero partidua erabakiko zuen aldea, lehen bi partzioletan 2-1 eta 4-2 nagusituz, 6-3koarekin erreti-

ratu baitziren aldageletara. Handik aurrera David Cerchirenek ondo asmatu zuten abantailari eusten, erakutsitako kontzentrazioari eta lan handiari esker. Garaipen horrekin, eibartarrek sei puntu dituzte une honetan eta Alcorcon bakarrera dago. Hamarrekin dagoen Waterpolo Malaga eta 13 dituen Colegio Brains dira gertuko sailkapenean.



## Urkik lau puntuko abantailaz amaitu du lehen itzulia lidergoan

Gipuzkoako Gorengo Erregional mailako 2. multzoko lider sendoa dela erakutsi du Urki FT-ko lehen



Urkiko gabonetako zozketaren irabazleak, Jesus Alzaga presidentearekin.

taldeak eta, lehenengo itzuliaren amaieran, lau puntuko aldea kentzen dio Ordizia bigarrenari eta seira dago Amaikak Bat hirugarrena. Beste guztiak urrutirago daude, multzo berean dagoen Eibartarrak kasurako. Azken hau, dena dela, ondo dago kokatuta, sailkapeneko erdialdean, igoberria izanda mailara nahiko ondo moldatu baita. Urki liderrak, bere aldetik, orain arte 12 partidu irabazi ditu, bakarra berdindu eta bi galdu; guztira, 37 gol sartu ditu bakarrik 13 jaso (gol gutxien jaso duen taldea dugu eta bigarrena golak sartzen, goiko mailatik datorren Debako Amaikak

Bat-en atzetik). Azken jardunaldian Urki Alkidebak 2-1 irabazi zion Anaitasunari, Etxebe eta Jurganen golekina, Elgoibarren jokaturako partiduan. Asteburu honetan ere, Unbeko atezainaren greba dela eta, etxeko partidu hori kanpoan jokatuko beharko du, oraingoan Zaldibarren: aurkaria Zestoa izango da (lehen itzulian, 1-2).

Erregionaleko 1. Mailan jokatzeko duen Urkiko bigarren taldeak aurreko asteburuan amaitu zuen lehen fasea, Ikasberri azken sailkatuari 9-0 irabaziz. Urki JMR azkenean seigarren postuan sailkatu da, Aretxabaletari aurrea hartuz.





JULEN BOLLAIN

## Gaur egun ere eredugarri?

Eibar Euskal Herriko industria-garapenaren ikur nagusietako bat izan da historian zehar. Hiriaren armarriko lema, "Eibar'ko hiri guziz eredugarria", harrotasunez betetako esaldi bat da, berrikuntzan eta garapenean egindako bidea azpimarratzen duena. Baina, gaur egungo egoera ekonomikoari erreparatuta, mantentzen al da lema hori?

XX. mendean izandako garapen industrialaren ostean, Eibarrek aldaketa handiak bizi izan ditu. Garai batean industrian erreferente izan zen hiriak globalizazioaren eta digitalizazioaren erronkei egin behar izan die aurre. Egia da Eibarrek industria-egitura duela oraindik ere, eta bertako enpresa txiki eta ertain asko industria 4.0ren beharretara egokitu direla. Hala ere, merkatu globalen presioak, deslokalizazioak eta belaunaldi errelebo faltak erronka handiak oraindik.

Bestalde, merkataritzara eta zerbitzuetara egindako dibertsifikazioak bizitasun berri bat ekarri dio Eibarko ekonomia-sareari, baina horrek ere bere erronkak ditu. Terziarizazioak hiriaren industria-sektorearen pisuaren galera ekarri du, eta horrek kezkak sortzen ditu ekonomia orekatua izateko orduan. Zerbitzuen sektorea ezinbestekoa den arren, hiriaren tradizio industrialak eta horrek sortzen dituen lanpostu egonkorrak gutxitzen ari dira. Gainera, enplegu berriak sortzeko gaitasuna sektore industrialean baino txikiagoa izan ohi da, eta horrek gazteentzako aukeren urritzea dakar. Hau guztia kontuan izanik, argi dago beharrezkoa dela industria eta merkataritzaren arteko oreka bilatzea, hiriaren identitateari eta garapen ekonomikoari eusteko.

Armarriko lema hausnartzera gonbidatzen gaitu. Gaur egun, Eibar eredugarria al da oraindik? Historiari eta kulturari dagokienez, zalantzarik gabe bai. Berritzeko gaitasuna eta komunitate espiritua txalotzekoak dira. Baina, ekonomia alorrean, eredugarri izateko, berrikuntzan, jasangarritasunean eta inklusioan konpromiso handiagoa erakutsi beharko da.

Eibarko harrotasuna mantentzeko oinarriak badira, eta hiri-erresilientziaren eta berrikuntzaren ikur gisa aurkezten jarrai dezake, etengabeko aurrerapenarekin eta egokitzapenarekin. Gure armarraren lema mantentzea posible da, zalantzarik gabe, baina horretarako politika ausartak eta berritzaileak behar dira, bai eta herritar, enpresa eta erakunde guztien ahalegin bateratua ere.

**“Argi dago beharrezkoa dela industria eta merkataritzaren arteko oreka bilatzea, hiriaren identitateari eta garapen ekonomikoari eusteko”**



## “Empalabramiento” ikastaroa hasiko da otsailean

Gaztelanian alfabetizatzea helburu duen Empalabramiento programaren beste edizio bat antolatu du Eibarko Udaleko Immigrazio eta Kultura Aniztasun alorrak. Gaztelania ez ezik, euskaraz ahoz jarduteko oinarritzko ezagutzak ere eskainiko dira. Otsailean egingo da, eta formatu trinkoa izango du honek ere, 60 ordukoa. Portalean egingo den ikastaroa otsailaren 3tik 28ra bitartean izango da, eta klaseak astelehenetik barixakura emango dituzte, 15:00retatik 18:00retara. Interesdunek urtarrilaren 29ra arte eman dezakete izena, Immigrazio eta Kultura Aniztasun alorrera deituta (943708440), edo mezua idatzita (immigratzioa@eibar.eus).



## Antzerki-tailerrera aurrematrikula egin daiteke

Udalak *Antzerki laborategia* tailerra antolatu du, “arte eszenikoen lanketa eta aukera herritarrei eskaintzeko asmoz”. Tailerrak elebitan emango dituzte, eta Errebal Plazan izango dira klaseak, eraikinaren bigarren solairuan. Aurrematrikula egiteko epea zabalik dago, hilaren 31ra arte. Informazio zehatza ikusteko, Udalaren webgunera sartu daiteke.



## Go!azen musikaleko bi saio eskainiko dituzte bihar

Bihar ailegatuko da *Go!azen* musikala Coliseo antzokira, eta bi saio eskainiko dituzte: lehenengoa 17:00etan, eta bigarrena 19:00etan. Beste batzuetan bezala, ETBko telesail ezagunaren ikuskizunera joateko sarrerren salmenta oso arrakastatsua izan da, baina, hala ere, oraindik sarrera gutxi batzuk geratzen dira. Antzezlan musikalak, telesailaren nortasunari jarraituz, musika eta narrazioa bateratzen ditu, eta elkarbizitzan eta harreman pertsonaletan jartzen du arreta. Ikuskizunak proposamen zaindu bat eskaintzen du, bai telesailaren bai haren antzerki-moldaketan kalitate artistikoari eutsiz. Sarrerak 10 euro balio du (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).



## Pintura-tailerra emango du Esteban Orozek Ipuruan

Margoketa-tailerra eskainiko dute bihar goizean Ipuruako Merkatu Plazan, Esteban Oroz artista eibartarraren eskutik. Saioa 11:00etan hasi eta 14:00etan amaituko da, eta parte hartzen dutenek akrilikoarekin nola margotu ikasiko dute, besteak beste. Arduradunek esan dutenez, “bakoitzak bere materiala eramaten badu, hobe”. Tailerrean parte hartzea dohainik izango da.



## Jürgen Landa eibartarraren kontzertua gaur Coliseon

JÜR izeneko proiektu pertsonala aurkeztuko du gaur Jürgen Landa musikari eibartarrak, Coliseo antzokian, 19:00etan. Abentura musikal honetan Julien Gutierrez (gitarra), Alex Gonzalez (gitarra), Miguel Beraza (baxua), Gaizka Uranga (perkusioa) eta Ivan Requejo (pianoa) ditu bidelagun. Musikari eibartarra EITB-ko *Ztanda* saioko azken edizioan finalista izan da, eta horrek bultzatu du bere nahia betetzera. Hala ere, lehenagotik zituen kaleratuta bere lan batzuk: Makis 37 taldearen *Azken akordiak* abestian parte hartu zuen, eta bakarkako lanen artean *Denborari* edo *Noraezean* nabarmendu daitezke. Pop-rock estiloan mugitzen da JÜR. Musikarekin zirrara sortu eta barrenak mugitzeko gaitasuna du, eta hori du helburu. Sarrerak 5 euro balio du eta leihatilan bertan erosi daiteke, kontzertua hasi baino lehen.



## Kaleetan Kantuz taldeak irteera egin zuen zapatuan

Ikasten elkartearen eskutik martxan dagoen Kaleetan Kantuz taldekoek ederto girotu zuten zapatu eguerdia, beraien kantuekin. Hilean behin kalean kantuan aritzen dira, eta azaldu digutenez, “Debabarreneko kale eta plazetan herri-kantuen tradizioa bultzatzea da xedea”.



## Pagatxaren zine-forum saioa egingo da gaur Portalean

Gaur itzuliko dira zine-forum feministaren saioak, Pagatxa Emakumeen Elkartearen eskutik, 18:30ean Portalean (areto nagusia). Urteko lehen saiorako aukeratu duten filma Ridley Scott-ek zuzendutako “Thelma & Louise” da. Susan Sarandon eta Geena Davis protagonista dituen pelikula ikusi eta gero, solasaldia egingo da, Yanire Sagredo dinamizatzaile berriak gidatuta. Sarrera doan eta libre da, edozeinentzat.

## JHH-ren aurkezpena eragileekin

Azken urtea barne-prozesu batean murgilduta eman eta gero, Jaixak Herrixak Herrixandako-k horren emaitza eta ondorioak plazaratuko ditu gaur, 19:00etan, Arrate Kultur Elkartearen (1. pisuan). Adierazi dutenez, “gure jardunaren inguruko hausnarketa sakona egin dugu, eta orain hau herriari zabaltzeko momentua da, JHH-ko hurrengo pausoak azaltzeko momentua, eta hau herriko eragile ezberdinekin batera egin nahi dugu”.



## 52.183 ikusle hartu zituen iaz Coliseo antzokiak

Coliseo antzokiak iaz hartu zituen 283 jarduera kulturaletara 52.183 lagun bertaratu ziren, Kulturak emandako datuen arabera. 136 pelikula proiektatu ziren antzokiko hiru aretoetan, 144 egunetan, asteburuetan eta jaiegunetan. Film horiek 17.910 ikusle erakarri zituzten guztira: *Del Revés 2 (Inside Out 2)* eta *La infiltrada* izan dira pelikula arrakastatsuenak. Gainera, 22 dokumental eta film labor proiektatu ziren.



**ZERTXOBAIT ERRAZAGOA**

5		9		1				
2					8	9		
	3	1	9					
			7		3		2	6
9	7		2		4			
					2	8	3	
		4	1					7
				5	6			1

3	9	2	8	5	7	6	4	1
8	9	4	1	3	6	2	8	3
1	5	7	6	4	2	8	3	9
6	2	3	5	8	1	7	9	4
4	1	8	7	9	3	5	2	6
7	3	1	9	2	5	4	6	8
2	4	6	3	7	8	9	1	5
5	8	9	4	1	6	3	7	2

soluzioa


**S  
U  
D  
O  
K  
U**

**ZERTXOBAIT ZAILAGOA**


		7				3	4	
8				9				
	4	5	8				7	
				4	1			5
		9				4		
4			3	2				
	3				7	9	8	
				1				3
7	2					6		

soluzioa

1	5	9	8	4	2	7	6	3
2	7	8	1	9	4	6	5	3
4	8	6	7	5	2	9	6	1
7	6	8	9	2	3	1	5	4
5	1	4	8	7	6	3	2	9
6	7	1	1	1	8	8	9	7
8	7	1	2	8	8	5	4	9
2	2	5	9	6	7	4	1	8
4	8	7	1	9	5	2	6	3



**L  
A  
B  
I  
R  
I  
N  
T  
O  
A  
K**



# Urtarrilak 24 - 30


## BARIXAKUA 24

### BARIXAKUAK JOLASIAN

**17:00/18:00** 2 eta 8 urte bitarteko umeentzat jolasak, euskaraz, begiraleen laguntzarekin. Antolatzailea: ...eta kitto! Euskara Elkarteak. Doan. Torrekuako parkea.

### ZINE-FORUM FEMINISTA

**18:30** "Thelma&Louise" (Zuz: Ridley Scott) filmari buruzko zine-foruma. Dinamizatzailea: Yanire Sagredo. Doan. Portalea (areto nagusia).



### JARDUNALDIA

**18:30** Indarkeria bikarioa eta genero-indarkeria instituzionalari buruz. Hitzaldia, Blanca Tulleuda "Libres de Violencia Vicaria" eta "CEPAMA" elkarteetako kidearen eskutik. Jarraian, Maria Bestar musikagile eta zinegilearen "No estás loca" film laburraren proiektzioa eta solasaldia. Ipuuruako Merkatu Plaza.

### AURKEZPENA

**17:30** Jaixak Herrixak Herrixandakoren eskutik, herriko talde eta eragileentzat. Arrate Kultur Elkarteak (1. pisua).

## MUSIKA

**19:00** Jür, Jürgen Landa eibartarraren proiektu musikala. 5 euro. Coliseo.



## ZAPATUA 25

### IKASTAROA

**11:00/13:00** San Blas opilak egiten ikasteko. Edurne Zenarruzabeitiaren eskutik. Arrate Kultur Elkarteak.

### MARGOKETA TAILERRA

**11:00/14:00** Esteban Orozen eskutik. Akrilikoak (materiala eramaten bada, hobe). Doan. Ipuuruako Merkatu Plaza.

### ASTELENA HAUR PARKEA

**11:00/14:00 eta 16:30/20:30** Astelena Haur Parkea. Astelena frontoia.

### ZAPATUKO IPUINA

**12:00** "Kantu kontari, ura dantzari", Josune Garcia de Bikuñaren eskutik. Ipuin kontaketa musikatua, 3 eta 7 urte bitarteko haurrentzat. Portalea (areto nagusia).



## ANTZERKI MUSIKALA

**17:00 eta 19:00** "Golazzen 11" telesailaren denboraldi berriko kontzertua. 10 euro (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.



## KIROLA FAMILIAN

**17:30/19:30** Ume (2-5 urte) eta gurasoentzat jolasteko gunea. Ipuuru kiroldegia.

## DOMEKA 26

### ZUHAITZ LANDAKETA

**09:30** Landaketa, Eibarko Baso Biziak elkartearen eskutik. Sorginbason. Unbe bukaeratik abiatuko dira.



## KIROLA FAMILIAN

**17:30/19:30** Ume (2-5 urte) eta gurasoentzat jolasteko gunea. Ipuuru kiroldegia.

## PATINAK IPURUAN

**17:45/19:45** Patinak Ipuuruan. Ipuuru kiroldegia.

## MARTITZENA 28

### EIBARTIK INDEPENDENTZIARA

**19:00** "Faxismoa eta eskuin muturra: orain eta hemen" hitzaldia, Jordina Arnau kazetariaren eskutik. Sarrera librea. Arrate Kultur Elkarteak.

## EGUENA 30

### DEPORREN MENDEURRENA

**18:30/19:30** Eibarko Klub Deportiboaren mendeurrena agurtzeko, logoa sortu eta argiztatzeko deia. Parte-hartzaileak 18:30ean Txaltxa Zelaian batuko dira. Linterna edo kopetako argia eraman. Untzaga.

### BAKARRIZKETA

**19:30** Kike Biguriren eskutik. 3 euro. Hatorren (Untzagako dorre azpian).



## ERAKUSKETAK

Urtarrilaren 31ra arte:

- "Baltiko" **JOSE LUIS IRIGOIEN**en argazkiak. (Portalea).


**Otsailaren 16ra arte:**  
- "Ibilian jarraitzea" **ANTON HURTADO**ren pintura erakusketa. (Portalea).

# ZINEA COLISEO

## 1 ARETOA

- **25ean:** 22:30
- **26an:** 20:00
- **27an:** 19:30

**“Itoiz udako sesioak”**  
DOKUMENTALA



2024/Euskal Herria/102'  
Zuzendaria: Larraitz Zuazo,  
Zuri Goikoetxea  
eta Ainhoa Andreaka  
**Musika taldearen ingurukoak**

## 1 ARETOA

- **25ean:** 22:30
- **26an:** 17:00, 20:00
- **27an:** 19:30

**“Las vidas de Sing Sing”**  
DRAMA



2023/AEB/105'  
Zuzendaria: Greg Kwedar  
Protagonista: Colman Domingo,  
Clarence Maclin, Sean Blackman  
**Errealitatean oinarria / Antzerkia**

## ANTZOKIA

- **25ean:** 22:30
- **26an:** 17:00 (1 Aretoa), 20:00
- **27an:** 19:30

**“Hombre lobo”**  
BELDURREZKOA



2025/AEB/103'  
Zuzendaria: Leigh Whannell  
Aktoreak: Christopher Abbott,  
Julia Garner, Sam Jaeger  
**Terrorea / Giza otsoak**

## ANTZOKIA

- **26an:** 17:00

**“El señor de los Anillos”**  
ANIMAZIOZKOA



2024/AEB/134'  
Zuzendaria: Kenji Kamiyama  
**Fantastikoa / Erdi Aroa / Ezpatak**  
**Zine epikoa**

**Virginia Herrera Cañas**  
3. URTEURRENA (2022/01/25)

**“Zu joan zara, baina zureganako gure maitasuna ez. Ez dugu inoiz ahaztuko zure bizipoza”**  
**Gure bihotzean beti bizirik, VIR - ETXEKOEK -**

**Vega Martinez Rioja**  
2025/01/19

**“Badira, inoiz ezabatzen ez diren oroitzapenekin batera, inoiz ere ahaztuko ez ditugun lagunak”**

**MAITE ZAITUGU - ZURE LAGUNAK**



943 20 67 76

aldizkaria@etakitto.eus



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...**eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzen ditugu.



Zorionak, **IRAIA**, neska haundi, eguaztenian 6 urte bete zenuazten eta. Patxo haundi bat etxekuen partez!



Zorionak, **ANDER!** Astelehenian 6 urte bete zenuazten eta. Jarraitu hain alaixa izaten. Musu erraldoi bat senide guztien partez.



Bixar 6 urte ezagutu zintugula, **POL**. Zorionak, maitxia, zu zarelako oparirik onena! Maite zaittugu, txapelduna.



Zorionak, **DANEL**, martitzenian 2 urtetxo bete zenuazten eta. Askoi maitte zaittuen famelixa guztiaren partez.




Zorionak, **ADRIAN**, hillaren 21ian 6 urte bete zenuazten eta. Besarkada haundi bat famelixa guztiaren partez.




Zorionak, **JARE!!** Domekan 6 urte beteko dozuz eta! Patxo haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, amama **VITORI!** Hillaren 21ian 95 urte bete zenuazelako. Famelixaren eta, bereziki, Kenan eta Telmoren partetik.



Zorionak, **MANEX!** 4 urte honezkeroko, mutil haundi! Musu erraldoi bat famelixa guztiaren partez!



Zorionak, **MARKEL**, mutil haundi! Hillaren 29xan 7 urte beteko dozuz eta! Patxo bat famelixaren partez. Askoi maite zaittugu.



Zorionak, **EKHI!** Martitzenian 4 urte egingo dozuz eta. Musu haundi bat Eibartik etxekuen partez. Happy birthday!

**ek!**

Zure publizitatea  
herriko aldizkarian

**688 621 535**

publizitatea@etakitto.eus



San Juan, 1

Tel. 943 20 33 29

LORA ETA LANDARE  
NATURAL ETA  
LEHORRAK  
EZKONTZETARAKO  
LORAK  
ZENTROAK  
ERRAMUAK

*Entzarguak etxera*

# Iragarki laburrak



943 20 67 76

aldizkaria@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Eteak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskeraek
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

## 1. ETXEBIZITZA

### 1.1. Salgai

- Pisia salgai edo alokagai Jar-diñetan. 657779664.

## 3. LOKALAK

### 3.1. Salgai

- Garaje itxia salgai Abontzan. 625071888.

### 3.2. Errentan

- Lokala edo garaje bikoitz itxia hartuko nuek alokairuan. 631092003.

## 4. LANA

### 4.1. Lan bila

- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 639107272.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 602626391.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan eta interna bezala ere. 642852854.
- Gizon arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientziarekin. 632708954.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak pasiatzeko. 617571210. Amaia.
- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko eta beste lanetarako. 603334249.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko garbiketarako egiteko. 638421827.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. Interna. 642044618.
- Neska eskaintzen da erizain-laguntzaile bezala edo kamarrera jarduteko. 625200924.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. Interna. 635944602.
- Emakumea eskaintzen da, nagusiak zaintzeko (soziosanitario laguntzaile ziurtagiria) eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. 632415374.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (baita ospitalean ere) eta garbiketarako egiteko. 687163826.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako lanak egiteko eta osasun arloan jarduteko. 633101852.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Interna. 632355103.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. 613287661.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. 642431753.

### 4.2. Langile bila

- Emakume arduratsua behar da nagusia zaintzeko Soraluzen. Esperientzia baloratuko da. Astean 20 ordu: astelehenetik ostiralera 3 ordu arratsaldean eta larunbatetan lanaldi zatitua. 666629274.
- Odontologo orokorra behar da Mendaroko Hartz Klinikaren batean. Jardun partziala adosteko. Euskaraz jakitea eta odontopediatrian ezagutzak izatea baloratuko da. CV-a: odonto2025@gmail.com
- Ileapaintzailea behar da Elgoibarren. Jardun erdirako edo osorako. 634261485.
- Laguntzailea behar dut bulego

lanetan laguntzeko. luen-go41@gmail.com

- Sukalde lanak egingo dituen esperientziadun pertsona behar da elkarte gastronomiko baterako. 620888320. Alex.
- Dekoratzailera behar da Eibarko Urrategi-Interiorismon. 629437192.

## 5. IRAKASKUNTZA

### 5.2. Eskaintzak

- LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatearen prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

## 6. DENETARIK

### 6.1. Salgai

- Binilozko LPak eta singleak erosiko nituzke. Baita 1985era arteko Euskal Herriko dantza-lekuetako pegatina, poxpolokaxa, posabaso eta sarrerak ere. 688624326.

### 6.2. Eman

- Dormideo etxeko koltxoia eta tapiflexa (1,35x1,90) oparitzen dira. 680145248.

# gremioen gida



## ANTENAK

Ego Gain, 2 - Bac  
Tfnoa. 943 12 73 50  
www.trinmer.com



**TELEKOMUNIKAZIOAN  
PROFESIONALAK**

## ELEKTRIZITATEA



TELEKOMUNIKAZIOAK  
ELEKTRIZITATEA  
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK  
24 orduko  
urgentziak  
610 532 922 www.thelecer.com

## KRISTALAK

**ACHA Kristaldegia**  
J.A. GISASOLA, 4 - ac  
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK  
eta faxa:  
info@cristaleriaacha.com 943 203 903

## AROTZAK



aluminiozko eta PVC-ko  
**AROTZEGIA**  
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar

Txonta, 30 - 1. eta behea  
Tfnoa: 943 12 13 67 www.ulmar.net

## IGELTSEROAK



Eraikuntza  
Erreformak  
Igeltseritza  
Jose Maria Irazabal, S.L.  
Zure etxea, bulegoa, tailerra...  
aldatzen laguntzen dizugu  
etorkizun hobeaz  
goza dezazun

Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia  
Tfnoa. 943-120108  
www.irazabal.net

## PLAGEN AURKA

**PLAGANATURA**  
PLAGEN AURKAKO ZERBITZUAK  
www.plaganatura.eus  
618 198 760  
ELGOIBAR  
QR code  
WEB orria



**943-206776**





# IRAZABAL

clínica dental



**Ainhoa Zulueta**  
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.  
**Euskal Herriko Unibertsitatea.**  
Unibertsitate Adua Aho Kirurgian,  
Periodontzian, inplantologian.  
**Leongo Unibertsitatea.**  
Diplomatua Aho Kirurgian.  
**Bartzelonako Unibertsitatea.**  
Hortz-Estetikan Diplomatua.  
**Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.**  
**Autran Institutua. Bartzelona.**  
Etengabeko Formakuntza.  
**New York-eko Unibertsitatea.**  
Oklusioan Graduondoa.  
**Anibal Alonso Doktorea.**

## Irribarreetan adituak

### Etor zaitez gu ezagutzera

Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak

JARRAI IEZAGUZU

 **Facebooken:** Clínica Dental Irazabal [www.clinicairazabal.com](http://www.clinicairazabal.com)



**IRAZABAL**  
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1 esk. - **20600 EIBAR**  
Tel.: 943 20 85 52 - [www.clinicairazabal.com](http://www.clinicairazabal.com)